



ALTZOKO UDALA

OHIKO PLENORAKO DEIA.

LEKUA: Altzoko Udaletxea

EGUNA: 2026ko otsailak 2, astelehena,

ORDUA: arratsaldeko 19:00etan.

G A I - Z E R R E N D A

- 1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.
- 2.- ALTZO MUÑOKO JU2 edo AI2 EREMUKO URBANIZAZIO LANAK; 6. ZERTIFIKAZIOA
- 3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZIEIen aurrean (“GI-3620 ERREPIDEK ABIAZTEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)
- 4.- ERREPOSIZIO ERREKURTSOA DELA ETA ERABAKIAK: JIAT-k ALTZOKO UDALAK 2025-12-16AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA (F.M.-REN AURKA JARRI ZUEN SALAKETA ARTXIBATZEA-REN KONTRA)
- 5.- TKT, TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA ETA UDALAREN ARTEKO 2026-2028 LANKIDETZA HITZARMENA
- 6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERIAREN BERRI EMATEA.
- 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK
 - Altzoko Haurreskola berriz irekitzeko posibilitateen azterketa

Altzon, 2026ko urtarrilaren 29an
Alkateak: Xabier Olano Jauregi



ALTZOKO UDALA

AKTA

2026ko otsailaren 2an, astelehenean: Osoko Bilkura.

Altzoko Udaletxean, 2026ko otsailaren 2an, astelehenean, arratsaldeko 19:00etan, behean zerrendatzen direnak bertan izanik, Osoko Bilkura burutu da.

Lehendakaria:	Xabier Olano Jauregi
Zinegotziak:	Ainara Garcia Bravo Xabier Murua Zubizarreta Enaitz Aizpitarte Murua Loli Arandia Azpeitia Alaitz Bilbao
Idazkaria:	Olga Urbizu Urreaga

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADA.

Aho batez onartu da 2026ko urtarrilaren 12ko Osoko Bilkurako akta eta web orrian informazioa emateko plataforman argitaratzea erabaki da.

2.- ALTZO MUÑOKO JU2 edo AI2 EREMUKO URBANIZAZIO LANAK; 6. ZERTIFIKAZIOA

ALTZO MUÑOKO OSTATU ATZEKO AUZOAN (JU2 edo AI2), AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK HOBETZEKO OBRA LANA egiten ari da, Construcciones ARTZAMENDI SA-ri esleitu zitzaion 553.074,19 €ko prezioan (BEZ gabe, obra honetan Altzoko Udala “inbertsioa egiten ari den zergaduna delako”)

Aipatu behar da, finantziatorako, Eusko Jaurlaritzako EREIN 2024 programak 300.000,00 € jarriko dituela jakinarazi zuela.

Dagoeneko 5 zertifikazio onartuta eta ordainduta daude, zehazki esanda 326.601,57 €, BEZa 0 dutenak.

Gaurko Plenora 6. lan zertifikazioa aurkeztu da; 51.109,41 €koa BEZa 0 duena eta hau onartuta 377.710,98 € onartuko dira.

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez ERABAKI DU:

***Lehenengoa:* Altzo Muñoko JU2n egindako urbanizazio lanen 6. Zertifikazioa onartzea, 51.109,41 €koa, BEZa 0 duena, Altzoko Udala obra honetan “inbertsioa egiten ari den zergaduna” delako, eta CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI Sari fakturatzen duenean ordaintzea.**

3.- INFORMAZIOA eta ERABAKIAK; JIAT-k AURKEZTUTAKO IDATZIEIen aurrean (“GI-3620 ERREPIDETIK ABIATZEN DEN ETA KATASTROKO 105. LURZATIAN DAGOEN PABILOIRA IRISTEN DEN BIDEA”ren INGURUKOKOAK e.a.)

Ikusirik, “Gai bera eta interesatu/eskatzaile berdina” duten 6 puntu aztertuko direla gaurko Osoko Bilkuran ere, Alkateak adierazi du lan zama horrek asko zailtzen duela Udalaren eguneroko jarduera eta oso nekeza egiten duela garaiz erantzutea.



ALTZOKO UDALA

- Ofiziozko berrikuspena tramitera ez onartzeagatik Alegazioa

2025-07-09an JIATek Altzoko Udalari eskatu zion ofizioz deuseztatu ditzala Udal erabaki batzuk: 2004/62 Dekretua, 2005/23 Dekretua, 2006/22 Dekretua eta 2008/15 anulatu ditzala.

2025-11-03ko Plenoan Udalak besteak beste erabaki zuen **Legezko Txostena berretsiz Jose Ignacio Arandiaren errebisio eskaera TRAMITERA EZ ONARTZEA eta 15 egunetako entzunaldi epea ematea egoki ikusten dituen alegazioak aurkeztu ditzan**. Erabaki hau 2025-11-21ean jaso zuen.

2025-11-28an aurkeztu zuen azaroaren 3ko erabakiaren aurkako Alegazioa.

Alkateak informatu du Legezko Txostena eskatuta dagoela eta prest dagoenean erabakitzeko utzi da.

- 2025-12-15ean aurkeztu zituen 4 idatziren aurrean Udal erabakiak

2025-12-16ko Plenoan azaldu zen aurreko Plenotik (2025-12-05tik) 4 idatzi sartu zituela 356, 357, 358 eta 359 sarrera zenbakiak dituztenak eta erabaki zen; **“Jose Ignacio Arandia Tolosari jakinaraztea 2025-12-15ean aurkeztu zituen 4 idatziei erantzuteko epea luzatzen dela hilabete batetik bira, modu errepikakorrean ari delako Udaletxean idatziz informazioa eskatzen eta gabon jaiak direla eta Altzoko Udala gutxieneko zerbitzua eskaintzen arituko delako.”**

2026-01-16an I Basasoro abokatua aurkeztu zen Udal bulegoan, eta 357 eta 358 sarrera zk duten dokumentuak informatutzat utzi zituen eta erantzuteko gelditu zirenak hauek dira 2025eko 356 eta 359 zenbakiak dituzten idatziak.

Guzti hau kontutan izanda, Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batezkoatasunez ERABAKI DU:

- **356 erregistro zenbakia duen informazio eskaerari** erantzunez jakinaraztea da Altzoko Udalak bere 2026ko Plantilan eta RPTan sartuta duela arkitekto plaza bat, %15eko jardunaldian hirigintza alorrean lana egiteko eta plaza hori betetzeko prozesua burutu bitartean, zerbitzua merkatu libreko profesionalekin burutzen duela.
- **359 erregistro zk duen idatziari dagokionena**, JIATri jakinaraztea Udalak ez duela inolako konpetentziarik deskribatutako egintzetan (bi partikularren artean gertatutako egintzetan) eta beraz ez duela inolako aktuaziorik egin.

184/2021 Prozedurako kostuen ordainketa

Gaiarekin jarraituz, Desjabetza Prozedurarekin lotuta (184/2021) Epaitegian Kostak Udalak ordaindu behar dituela erabaki zuen eta zenbatekoak zehaztu zituen. Guzti hau kontutan izanda, Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batezkoatasunez ERABAKI DU: guztira 5.168,33 € ordaintzea, 184/2021 Desjabetza Prozedurak eragindako Kosten Tasazioaren ordainetan, Epaitegiak adierazten duen kontuan, moduan eta garaian (Epaitegiak 2026-02-20an jakinarazi ditu ordainketa egiteko instrukzioak eta kontu zk.) eta ordainketak egiteko modua.

Zehazki esanda ondorengo moduan banatzen da 5.158,33 €ko zenbateko osoa:

- 2.561,33 € abokatu kostua (Basasoro)
- 1.320,00 € periziala (J.J.Lopez Azurmendi)
- 1.287,00 € periziala (Igone Ortuzar)



184/2021 Prozeduraren Sententzia dela eta ejekuzio eskaera,

2025-12-17an JIA Tak Donostiako Kontentzioso Administratiboko 2. Epaitegian exekuzio forzoso eskatu du; zehazki Epaitegiari eskatuz batetik, jabearentzat bide partikularren erabilera bermatua izan dezan eta bestetik Epaitegiak Udalari eskatu diezaion bere garaian erretiratu omen zituen atak jarriak izan daitezen, hori ere helburu berarekin.

Epaitegian Prozedura honetan Udala ordezkatzan duen Aitor Iztueta Abokatuak eta Ainhoa Kintanak erantzungo dute.

4.- 2026-01-27ko ERREPOSIZIO ERREKURTSOA DELA ETA ERABAKIAK:
(JIAT-k Altzoko Udalak 2025-12-16an hartutako erabakiaren kontra, F.M.-ren aurka jarri zuen salaketa artxibatzea-ren kontra)

Aipatu Errekurtsoa 2026-01-27an sartu da Udal Erregistroan eta hilabeteko epea dago erantzuteko (2026-03-02 arte) eta aurrerago erantzutea erabaki da, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, Xabier Murua eta Enaitz Aizpitarteren abstentzioarekin eta gainontzekoen aho batez kotasunez.

5.- TKT, TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA ETA UDALAREN ARTEKO 2026-2028 LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosaldeko Komunikazio Taldearekin 4 urtetarako lankidetzaren Hitzarmena sinatu zen 2022an.

Oraingo honetan TKT SL-k 2026-2028 arteko Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea proposatzen du, hiru urtekoa; 2026, 2027 eta 2028rako eta Altzoko Udalak biztanleko 5 € ko ordainketa egin beharko diona Komunikazio Taldeari urtero.

Udalak, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez ERABAKI DU:

Lehenengoa: Tolosaldeko Komunikazio Taldea eta Altzoko Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea (2026-01-01ean hasi eta 2028-12-31an amaitzen dena) eta Xabier Olano Jauregi alkateari baimena ematea aipatu Hitzarmena Udalaren izenean izenpetu dezan.

Bigarrena: 2026ko ekarpena (448 biztanle x 5 € biztanleko), 2.240 €, Hitzarmena sinatutakoan egitea.

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak aurreko Plenoaz geroztik erabaki dituen Dekretuen berri eman du, 2026/2tik 2026/6 (2026/4 Alkateordeak sinatuta dago), biak barne, Dekretuak irakurriz. Gainontzekoak jakinaren gainean gelditu dira.

7.-ORDAINKETAK ETA DIRU LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADA ETA TESORERARIEN BERRI EMATEA.

Gaurko Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu diren 3.000 €tik gorako fakturak ondorengoak dira:

- Construcciones Artzamendi SA: 51.109,41 €, JU2ko urbanizazio lanen 6. Zertifikazioa.
- Tolosaldeko Mankomunitatea: 4.678,99 €, zaborren kudeaketa 2025ko abendua.



ALTZOKO UDALA

Diru laguntzak:

- TKT-Ataria; 2026ko ekarpena 2026-2028 Hitzarmenaren baitan: 2.240 €
- KORRIKA 24: 847 € eta Ordainketa formalizatzeko sinatuko den Kontratoa sinatzeko baimena eman zaio Alkateari

Puntu honekin amaitzeko, informatu da Alzoko Udaletxean, gaurko egunez, 289.635,11 € daudela bi kontuetan; hauetatik 39.635,11 € eguneroko ordainketak eta sarrerak egiteko eta 250.000 € gordailu kontuan.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Guztien adostasunez ondorengo gaia aztertu da:

Alzoko Haurreskola berriz irekitzeko aukera aztertzea

Alzoko Haurreskola, 2025-26 ikasturtean ez da ireki, haur faltagatik. Berriz irekitzekotan gutxienez 3 haur egon behar dira.

Alkateak informatu du, 2026ko urtarrilean hiru haur jaiotzeak direla eta 2025eko abenduan beste haur 1.

Haur hauen gurasoak Haurreskola erabili nahi balukete Udalak egin beharko lituzke Haurreskolak Partzuergoarekin 2026-27an Alzoko Haurreskola berriz irekitzeko izapideak. Beraz, lehenik, Ainara Garcia zinegotzia arduratuko da gurasoen asmoaz informatzen, informazioa jaso ondoren Partzuergoarekin harremanetan jartzeko irekitzeko posibilitatea ikusten bada.

Eta beste gairik ez denez aurkeztu Alkateak 20:30etan bilkura amaitutzat eman du.

Altzon, 2026ko otsailaren 20an, (2026-02-25-ko Osoko Bilkuran onartuta)

Alkateak o.e.

Idazkariak.